Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA

# HITZARMENA

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTAREAREN**

**ETA**

**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKOA**

**"GALINDOKO HUA-N (BBUP) KULIZIDOEN ETA KIRONOMIDOEN POPULAZIOAK MURRIZTEKO PLAN ESTRATEGIKO INTEGRALA. 2021EKO JARRAIPEN KANPAINA"**

# CONVENIO

**ENTRE**

**FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

**Y**

**CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA**

**"PLAN ESTRATÉGICO INTEGRAL DE MITIGACIÓN FRENTE A LAS POBLACIONES DE CULÍCIDOS Y QUIRONÓMIDOS EN LA EDAR DE GALINDO (CABB). CAMPAÑA DE SEGUIMIENTO 2021"**

Bilbon, 2021eko martxoaren 26an.

En Bilbao, a 26 de marzo de 2021

**BATU DIRA**

Alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologiako Fakultatea (hemendik aurrera, UPV/EHU), Ibon Sagastabeitia Buruaga jaunak ordezkatuta, Fakultateko jarduneko dekanoa den aldetik; ekitaldi hau gauzatzeko ahalmen nahikoak ditu, LOUren (Unibertsitateen Lege Organikoa) 83. artikuluan, Estatutuetan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Kanpo Kontratuen AarauDI Erregulatzailean ezarritakoaren arabera, eta,

Beste alde batetik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (hemendik aurrera, BBUP), P-4800005-C IFKrekin. Egoitza Bilbon dauka (San Bizente 8, Albia I eraikina). Partzuergoaren izen eta ordezkaritzan, Kepa Odriozola Azula jauna aurkeztu da, erakundearen presidentea den aldetik, eta ekitaldi hau gauzatzeko ahalmen nahikoarekin.

Ordezkari biek gaitasun juridiko nahikoa aitortu diote elkarri, eta dagozkien erakundeen izenean sinatu dute dokumentu hau, eta, horretarako,

**REUNIDOS**

De una parte la Factultad de Ciencia y Tecnología de la Universidad del País Vasco (en adelante UPV/EHU), en la persona de D. Ibon Sagastabeitia Buruaga como Decano en funciones de la Facultad, con poderes suficientes para la celebración de este acto en virtud de lo establecido en el Artículo 83 de la L.O.U., los Estatutos y la Normativa Reguladora de los Contratos Externos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y,

De otra parte el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia (en adelante CABB) con C.I.F .P-4800005-C, con sede en Bilbao, calle San Vicente número 8, Edificio Albia I, y en su nombre y representación D. Kepa Odriozola Azula actuando en calidad de Presidente del mismo, con poderes suficientes para la celebración de este acto.

Ambos representantes, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica suficiente, suscriben en nombre de las respectivas entidades el presente documento y, al efecto,

**ADIERAZI DUTE**

LEHENENGOA.- UPV7EHUk sektore eta diziplina anitzeko Ikerketarako Erakundea da, eta ikasketa, ikerketa eta garapen zientifiko zein teknologikoko jarduerak egiten ditu.

BIGARRENA. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa tokiko sektoreko admnistrazio publikoa da, eta bere funtzio nagusia da uren saneamenduko eta hornidurako zerbitzuak ematea partzuergoa osatzen duten udalerrietan.

HIRUGARRENA.- BBUPek interesa agertu du UPV/EHUrekin batera lan egiteko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saileko Benjamín Gómez Moliner doktore ikertzaile arduradun jaunak zuzendutako lantaldearen bitartez, *"Galindoko HUAn (BBUP) kulizidoen eta*

**EXPONEN**

PRIMERO.- Que la UPV/EHU es una Entidad de Investigación de carácter multisectorial y pluridisciplinario que desarrolla actividades de enseñanza, investigación y desarrollo científico y tecnológico.

SEGUNDO.- Que el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia es una administración pública del sector local que tiene como función primordial la prestación de los servicios de abastecimiento y saneamiento de aguas en los municipios que lo componen.

TERCERO.- Que el CABB está interesado en la colaboración de la UPV7EHU a través del grupo de trabajo dirigido por el investigador responsable Dr. Benjamín Gómez Moliner del Departamento de Zoología y Biología Celular Animal de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en el desarrollo del Proyecto *"Plan estratégico integral de*

*kironomidoen populazioak murrizteko plan estrategiko integrala: 2021eko udako jarraipen kanpaina"* proiektua garatzeko.

*mitigación frente a las poblaciones de culícidos y quironómidos en la EDAR de Galindo (CABB). Camapaña de Seguimiento 2021".*

LAUGARRENA.- Proiektua Unibertsitateak garatuko du, eta lanak argi eta garbi geratuko dira definituta Proiektu horren Memorian.

CUARTO.- Que el proyecto será desarrollado por la Universidad, quedando claramente definidos los trabajos en la Memoria del citado Proyecto.

Hori guztia dela eta, Hitzarmen hau egingo dute, klausula hauen arabera:

Por todo ello, formalizan el presente Convenio con arreglo a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLÁUSULAS**

LEHENENGOA.- Kontratu honen helburua da "Galindoko HUAn (BBUP) kulizidoen eta kironomidoen populazioak murrizteko plan estrategiko integrala (2021eko udako jarraipen kanpaina)" izeneko proiektuko lanak gauzatzea, dokumentu honekin batera proiektuaren memorian.

PRIMERA.- El objeto del presente Convenio es regular la realización de los trabajos bajo el título "Plan estratégico integral de mitigación frente a las poblaciones de culícidos y quironómidos en la EDAR de Galindo (CABB). Campaña de Seguimiento 2021" que figuran en la Memoria del Proyecto que acompaña al presente documento.

BIGARRENA.- Erantsitako Memorian zehazten den planari jarraiki, lanak Zientzia eta Teknologia Fakultateko Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Sailak gauzatuko ditu, Benjamín Gómez Moliner doktorearen zuzendaritzapean.

SEGUNDA.- Los trabajos, siguiendo el plan que se especifica en la Memoria adjunta, se llevarán a cabo por el Departamento de Zoología y Biología Celular Animal de la Factultad de Ciencia y Tecnología, bajo la dirección del Dr. Benjamín Gómez Moliner.

HIRUGARRENA.- Proiektua garatzeko aurreikusitako epea 8 hilabetekoa da: 2021eko martxoaren 1etik 2021eko urriaren 31ra.

TERCERA.- La duración prevista para el desarrollo del proyecto es de 8 meses: desde 1 de marzo de 2021 a 31 de octubre de 2021.

LAUGARRENA.- Proiektua gauzatzeko kontraprestazio gisa, BBUPek Unibertsitateari 35.849,41 euroko (BEZ aparte) zenbatekoa emateko konpromisoa hartu du, modu honetan:

CUARTA.- Como contraprestación para la realización del proyecto, el CABB se compromete a abonar a la Universidad la cantidad de 35.849,41 € (sin incluir el IVA) de la siguiente manera:

| | Zenbatekoa Importe | Data / Fecha | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Faktura Factura | Iraungipena Vencimiento | |
| 1. Ordainketa Pago nº1 | 17.924,70 € | 2021/03/01 01/03/2021 | 2021/04/01 01/04/2021 | Hitzarmenaren sinadura Firma del convenio |
| 2. Ordainketa Pago nº2 | 17.924,71 € | 2021/10/31 31/10/2021 | 2021/11/31 31/11/2021 | Atazen amaiera Finalización tareas |

Zenbateko horiek dagokien BEZarekin handitu beharko dira.

Estas cantidades deberán incrementarse con el IVA que les sea de aplicación.

BOSGARRENA.- Zenbatekoa Kutxabanken Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean irekitako 2095-0292-90-9101266146 zenbakiko kontuan ordainduko da. Kontu horren izenburua "Ingresos Facturas OTRI" da.

QUINTA.- El abono de la cantidad resultante se hará efectiva en la cuenta número 2095-0292-90-9101266146, titulada "Ingresos Facturas OTRI" de la UPV/EHU, abierta en Kutxabank, a nombre de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

SEIGARRENA.- Aldeetako bakoitzak konpromisoa hartzen du inondik ere ez zabaltzeko Hitzarmen honen xede den hitzarmenaren garapenean lortutako informazio zientifiko edo teknikoak, informazio horiek jabari publikokoak ez diren bitartean.

SEXTA.- Cada una de las partes se compromete a no difundir, bajo ningún aspecto, las informaciones científicas o técnicas obtenidas en el desarrollo del proyecto objeto de este Convenio, mientras esas informaciones no sean de dominio público.

Proiektu bateratuetatik lortutako datuak, txostenak eta azken emaitzak isilpekoak izango dira. Aldeetako batek emaitza partzialak edo amaierakoak osorik edo zatika erabili nahi baditu (artikulu, hitzaldi eta abarrerako), beste aldearen adostasuna idatziz eskatu beharko du, proiektuaren jarraipenaren arduradunari bidalitako gutun ziurtatu bidez.

Los datos e informes obtenidos durante la realización de los proyectos conjuntos, así como los resultados finales, tendrán carácter confidencial. Cuando una de las partes desee utilizar los resultados parciales o finales, en parte o en su totalidad, para su publicación como artículo, conferencia, etc. deberá solicitar la conformidad de la otra parte por escrito, mediante carta certificada dirigida al responsable de la misma en el seguimiento del proyecto.

Beste aldeak gehienez ere hamabost eguneko epean erantzun beharko du, eta artikuluan edo hitzaldian jasotako informazioari buruzko baimena, zalantzak edo desadostasuna agertu beharko du. Epe hori igaro eta erantzunik izan ez bada, ulertuko da isiltasuna berariazko baimena dela datu horiek zabaldu ahal izateko.

La otra parte deberá responder en un plazo máximo de quince días, comunicando su autorización, sus reservas o su disconformidad sobre la información contenida en el artículo o conferencia. Transcurrido dicho plazo sin obtener respuesta, se entenderá que el silencio es la tácita autorización para su difusión.

Argitalpenetan zein patenteetan, eta, oro har, emaitzak erabiltzeko edozein modutan, lanaren egileak aipatu beharko dira beti, eta patenteen kasuan, asmatzaile gisa agertuko dira. Edozelan ere, emaitzen berri emanez gero, hitzarmen honen erreferentzia berezia egin beharko da beti.

Tanto en publicaciones como en patentes y, en general, en cualquier forma de utilización de los resultados se respetará siempre la mención a los autores del trabajo, figurando como inventores en el caso de las patentes. En cualquiera de los casos de difusión de resultados se hará siempre referencia especial al presente convenio.

ZAZPIGARRENA.- Alderdietako batek hitzarmen honen bidez hartutako betebeharretako edozein ez betetzeak gainerako alderdiei ahalmena ematen die hitzarmen hori indargabetzeko, eta automatikoki baliogabetuko dira alderdi eragilearen eskubide guztiak. Bada, alderdi eragile horrek beste alderdiak indargabetzearen unera arte sortutakoak ordaindu behar ditu.

SEPTIMA.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones contraídas por el presente Convenio por alguna de las partes facultará a las otras para resolver el mismo, quedando automáticamente anulados todos los derechos de la parte causante que deberá satisfacer los devengados por la otra parte hasta el momento de la resolución.

ZORTZIGARRENA.- Aldeek Hitzarmen hau eten ahal izango dute, biak elkarrekin ados egonez gero. Alderdi biek ordaindu behar dituzte indargabetzearen unera arte sortutako sortzapenak.

OCTAVA.-. El presente Convenio podrá resolverse por mutuo acuerdo de las partes contratantes. Debiendo satisfacer ambas partes los devengos generados hasta el momento de la resolución.

Lanen zuzendaria den Benjamín Gómez jaunak etena gertatu arte lortutako emaitzei buruzko txostena emango dio enpresari edo erakundeari, eta modu librean erabili ahal izango ditu emaitza horiek, baldin eta seigarren klausulan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

D. Benjamín Gómez, director de los trabajos, entregará a la Entidad un informe de los resultados obtenidos hasta el momento de la interrupción y podrá utilizar libremente dichos resultados, siempre que salvaguarde las condiciones estipuladas en las cláusulas sexta y siguientes.

BEDERATZIGARRENA.- BBUPek aitortzen du UPV/EHUren Zuzenbide Publikoko Erakunde izaera ezagutzen duela, eta, ondorioz, badaki Administrazio Prozedurako arauen menpe dagoela.

NOVENA.- El CABB declara conocer el carácter de Entidad de Derecho Público que ostenta la UPV/EHU y, en consecuencia, la aplicabilidad a la misma de las normas del Procedimiento Administrativo.

HAMARGARRENA.- Dokumentu honekin eskritura publikoa egin ahal izango da, kontratuko aldeetako edozeinek, dagokion kostuarekin, hala eskatuko balu, edo indarrean dagoen legeak hala eskatuko balu.

DECIMA.- Este documento podrá ser elevado a escritura pública a petición de cualquiera de las partes contratantes a su costo, o cuando así lo exija la legislación vigente.

Agiri hau irakurri dute eta ados daude, eta, beraz, aipatutako lekuan eta egunean bi aletan sinatu dute.

Habiendo leído el presente por sí mismos y hallándose conformes, lo firman por duplicado en el lugar y fecha indicados en este documento.

EHUKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEAREN ALDETIK,

POR LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA DE LA UPV,

IZ./FDO.: IBON SAGASTABEITIA BURUAGA

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ALDETIK,

POR EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA,

IZ./FDO.: KEPA ODRIOZOLA AZULA